Hitzarmena gauzatzean sortzen diren azterlanak eta dokumentuak erabiltzeko, edo horietatik eratorritako argitalpen zientifikoak eta bestelakoak egiteko, beharrezkoa izango da alde sinatzaileak aurrez hartarako ados agertzea, eta alde bien arteko lankidetzak aipatu beharko da beti.

El uso y las publicaciones científicas o demás divulgaciones que, en su caso, se deriven de los estudios y documentos elaborados con motivo del convenio, necesitarán el acuerdo previo de las partes firmantes, debiendo citarse siempre la presente colaboración existente entre ellas.

BEDERATZIGARRENA.- BABESA.

DATUEN

NOVENA.- PROTECCIÓN DE DATOS.

AZTI Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarteak, hitzarmen honen barruan bakoitzari dagokion eremuan, konpromisoa hartzen dute arau hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesteko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. Lanak amaitu ondoren ere, betebeharrak indarrean jarraituko du.

La Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit, en sus respectivos ámbitos de actuación dentro del presente convenio, se comprometen a cumplir las exigencias previstas en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y en el Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la LOPD. La citada obligación subsistirá aun después de terminado los trabajos.

HAMARGARRENA.-

**KONFIDENTZIALITASUNA ETA AZTI
FUNDAZIOAREN ETA CEIT TEKNOLOGIA
ZENTROA ELKARTEAREN
BETEBEHARRAK, HITZARMENAREN
BARRUAN BAKOITZARI DAGOKION
ESPARRUKO DATU PERTSONALEN
TRATAMENDUAREN ARDURADUN
DIREN ALDETIK**

**DÉCIMA.- CONFIDENCIALIDAD Y
OBLIGACIONES DE LA FUNDACION AZTI
/ AZTI FUNDAZIOA Y LA ASOCIACIÓN
CENTRO TECNOLÓGICO CEIT COMO
ENCARGADAS DE TRATAMIENTO DE
DATOS PERSONALES EN SUS
RESPECTIVOS ÁMBITOS DE ACTUACIÓN
DENTRO DEL CONVENIO.**

1.- Konfidentzialtasuna.

Azti Fundazioak, Ceit Teknologia Zentroa elkarteak eta entitate horiek lana burutzeko atxikitzen dituzten pertsonak eta azpikontratatzeko diren enpresek (halakorik egiten bada) eskuratzen duten informazio guztia konfidentziala izango da eta, ondorioz, sekretu profesional moduan hartu behar da, indarreko araudiaren arabera. Beraz, sekretupean eduki beharko da informazio hori, eta ezingo zaio eman inongo pertsona fisiko edo juridikori, dela osorik dela partzialki, baldin eta pertsona horrek ez badu zerikusirik mandatuarekin, salbu eta mandatu egin duen organoak aurrez eta berariaz baimena ematen ez badu.

Arestian aipatutako edozein pertsona fisiko edo juridiko konfidentzialtasunaren betebeharra eta, hala badagokio, lanbide-sekretuaren betebeharra urratzen badu, dagozkion erantzukizunak eta kalte eta galerak eskatu ahal izango dira. Betebehar horiek betetzen jarraitu behar da Azti

1.- Confidencialidad.

Toda la información a la que tengan acceso con ocasión del cumplimiento del convenio tanto la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit, como las personas por ellas adscritas a su ejecución y, en su caso, las empresas subcontratistas, tienen el carácter de confidencial y está sometida al deber de secreto profesional, de conformidad con su normativa aplicable, por lo que deberá mantenerse en reserva y secreto y no revelarse de ninguna forma, en todo o en parte, a ninguna persona física o jurídica que no sea parte del encargo, salvo que medie autorización previa y expresa del órgano que realiza el convenio

La vulneración por parte de cualquiera de las personas físicas o jurídicas anteriores del deber de confidencialidad y, en su caso, del deber de secreto profesional dará lugar tanto a la exigencia de las correspondientes responsabilidades como de los daños y perjuicios ocasionados. Deberá cumplirse

Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarteak enkargua amaitu ondoren edota Azti Fundazioaren eta Ceit Teknologia Zentroa elkartearen eta enpresa kontratistaren arteko kontratua amaitu ondoren ere.

con tales deberes aun cuando la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit hayan finalizado los trabajos objeto del convenio o haya cesado la relación contractual entre aquéllas y la empresa contratista.

Nolanahi ere, datu pertsonalen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horiek eskuratzea, eta daturen bat jakinez gero ere, sekretupean gorde beharko da.

En todo caso, en la realización de trabajos que no impliquen el tratamiento de datos personales, queda prohibido acceder a ellos, y es obligatorio guardar secreto respecto a los que pudieran conocerse.

2. Datu pertsonalen tratamendurako enkargua.

2.- Encargo de tratamiento de datos personales.

Hizpide den enkargua betetzeko, tratamendu-jardueren erregistroan (TJE) jaso diren eta enkarguaren xede diren jardueretan dauden datu pertsonalak tratatuko dituzte Azti Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarteak.

Para el cumplimiento de este convenio, la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit tratarán los datos personales que figuran las actividades objeto del convenio declaradas en el Registro de Actividades de Tratamiento (RAT):

Tratamendu-jarduera	Arduraduna
Uraren arloan dauden baimenen eta emakiden kudeaketa.	Uraren Euskal Agentzia

Actividad de tratamiento	Responsable
Gestión de autorizaciones y concesiones en materia de aguas.	Uraren Euskal Agentzia / Agencia Vasca del Agua

AZTI Fundazioak eta CEIT Zentro Teknologikoa elkarteak tratamendu-arduradun gisa jardungo dute, bakoitzak hitzarmeneko bosgarren eta seigarren klausulen arabera bere gain hartuko ditu konpromisoak dagokienez.

La Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit actuarán, así, en calidad de encargados de tratamiento, en relación con los compromisos adquiere cada una en virtud de las cláusulas quinta y sexta del convenio, respectivamente.

Datu pertsonalen tratamenduak» izeneko eranskinean zehatz azaltzen dira zein datu pertsonal babestu behar diren eta AZTI Fundazioak eta CEIT Zentro Teknologikoa elkarteak zein tratamendu-jarduera egin behar duten eta zein neurri ezarri behar dituzten.

El Anexo denominado “Tratamientos de datos personales” describe en detalle los datos personales a proteger así como las operaciones de tratamiento a realizar y las medidas a implementar por la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit.

Hitzarmena egikaritzean aipatutako eranskinean ezarritakoa aldatzea beharrezkoa bada, Uraren Euskal Agentziak aukera izango du eranskin eguneratu bat egiteko.

En caso de que, como consecuencia de la ejecución del convenio, resultara necesario en algún momento la modificación de lo estipulado en el citado Anexo, la Agencia Vasca del Agua podrá emitir un Anexo actualizado.

3.- Datu pertsonalen tratamenduaren eragilearen betebeharrak.

3.- Obligaciones como encargadas del tratamiento de datos personales.

2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua —Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra— indargabetzen duena) 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, AZTI Fundazioak eta CEIT Zentro Teknologikoa elkarteak «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskineko betebeharez gain honako hauek ere bete behar ditu:

La Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit cumplirán las siguientes obligaciones, complementadas con lo detallado en el anexo denominado «Tratamientos de datos personales», de conformidad con lo previsto en el artículo 28 del «Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos)», en adelante, (RGPD):

Soilik eskuratu edo tratatuko ditu «*Datu pertsonalen tratamendua*» izeneko *eranskinean* zehazten diren datu pertsonalak, eta eskuratzen edo tratatzen diren datu pertsonal horiek hitzarmenaren xedea betetzeko soilik erabili edo aplikatuko ditu.

Hitzarmen honetan jasotzen diren jarraibideak betez tratatuko ditu datu pertsonalak, baita tratamenduaren ardura duen organoak idatziz ematen dizkion jarraibideak betez ere. Baina jarraibideren bat une bakoitzean aplikatzekoa den datu pertsonalak babesteko araudiaren kontrabada, berehala emango dio horren berri tratamenduaren ardura duen organoari.

Segurtasuna bermatzea eta arriskutik babestea izango dira datu pertsonalak tratatzeko kontuan izango dituen irizpideak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan ezarritakoa betez; horrez gain, eskuratzen dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta integritatea bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolaketakoak hartu eta beteko ditu.

Konfidentzialtasun osoz zainduko ditu enkargua betetzeko eskuratzen dituen datu pertsonalak, baita tratamenduaren ondorioz eskuratzen dituenak ere, eskuratu diren euskarria zeinahi ere den.

No accederán o tratarán otros datos personales que no sean los especificados en el «Anexo -Tratamientos de datos personales», ni utilizarán o aplicarán los datos personales a los que accedan o traten con una finalidad distinta a la ejecución del objeto del convenio.

Tratarán los datos personales conforme a las instrucciones documentadas en el presente convenio y a aquellas que, en su caso, reciba del órgano responsable del tratamiento por escrito, e informarán inmediatamente a este último cuando, en su opinión, una instrucción sea contraria a la normativa de protección de datos personales aplicable en cada momento.

Tratarán los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y contención del riesgo conforme a lo previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observarán y adoptarán las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tengan acceso.

Mantendrán la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tengan acceso para la ejecución del encargo, así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

Betebehar hori bete behar dute, halaber, AZTI Fundazioaren eta Ceit Teknologia Zentroa elkartearen kontura datu pertsonalen tratamenduaren faseetako edozeinetan parte hartzen duten pertsona guztiek. Izan ere, beraien ardura da bere mendeko pertsonen azaltzea sekretua nahitaez gorde behar dutela, baita agindutako zerbitzua amaitu ondoren edo agindutik kanpo geratu ondoren ere.

Ez dizkie datu pertsonalak jakinaraziko edo zabalduko beste bitarteko batzuei, gordetzeko izan arren. Hori egiteko ezinbestean behar du tratamenduaren ardura duen organoaren alde aurreko eta berariazko baimena, kasu bakoitzean.

Hitzarmen honen xede den hitzarmena amaitzen denean, AZTI Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarteak itzuli edo suntsitu egingo dituzte eskuratu dituzten datu pertsonalak, tratamenduaren ondorioz eskuratu dituztenak eta datu horiek jasotzen dituzten euskarriak eta dokumentuak, tratamenduaren ardura duen organoak «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean zehaztutakoaren arabera. Nolanahi ere, ez dira suntsituko lege edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arau baten bidez datuok mantentzea baimentzen edo eskatzen bada.

Hori gorabehera, AZTI Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarteak datu pertsonal

Esta obligación se extenderá a toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos personales por cuenta de la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit, siendo deber de las mismas instruir a las personas que de ellas dependan, de este deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación del convenio o de su desvinculación.

No comunicarán ni difundirán los datos personales a terceros, ni siquiera para su conservación, a menos que se cuente, en cada caso, con la autorización previa y expresa del órgano responsable del tratamiento.

Devolverán o destruirán, a elección del órgano responsable del tratamiento reflejada en el Anexo «Tratamiento de datos personales», los datos personales a los que hayan tenido acceso, aquellos otros generados por ellas por causa del tratamiento, y los soportes y documentos en que cualesquiera de esos datos consten, una vez finalizado el objeto del presente convenio. No procederá su destrucción cuando su conservación se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario.

No obstante, la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit podrán

horiek gorde ditzakete tratamenduaren ardura duen organoarekin duen harremanetik erantzukizunen bat ager daitekeen denboran zehar; kasu horretan, datu pertsonalak ahalik eta denbora laburrenean gordeko dituzte, blokeatuta, eta denbora hori amaitzen denean modu seguruan eta behin betiko suntsituko dituzte.

Europako Esparru Ekonomikoaren barruan tratatuko dituzte datu pertsonalak, edo aplikatzekoa den araudiaren arabera antzeko segurtasuna duen beste espazio baten barruan. Ez dituzte esparru horietatik kanpo tratatuko, ez zuzenean ez baimendutako azpikontratista baten bitartez, hitzarmenean ezarritakoa betez. Baina, salbuespen moduan, esparru horietatik kanpo tratatu ahal izango ditu datuak baldin eta Europar Batasuneko edo aplikatzekoa den estatu kideko zuzenbideak horretara behartzen badu, «Datu pertsonalen tratamendua» izeneko eranskinean beste zerbait ezartzen bada edo tratamenduaren ardura duen organoak berariaz hala agintzen badu.

Beren ardura peko datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero, berehala eta behar bezala jakinaraziko diote tratamenduaren ardura duen organoari, urraketaz jabetu eta gehienez ere 72 orduan. Zehazki, honako hauek helarazi beharko dizkiete, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 33. artikuluaen arabera: gorabeheraren dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzizko informazio

konserbar los datos personales durante el tiempo en que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el órgano responsable del tratamiento, en cuyo caso los conservarán bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndolos de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

Tratarán los datos personales dentro del Espacio Económico Europeo u otro espacio considerado por la normativa aplicable como de seguridad equivalente, no tratándolos fuera de este espacio ni directamente ni a través de cualesquiera subcontratistas autorizados, conforme a lo establecido en este convenio, salvo que esté obligado a ello en virtud del Derecho de la Unión o del Estado miembro que le resulte de aplicación, que se indique otra cosa en el *Anexo «Tratamiento de datos personales»* o se instruya así expresamente por el órgano responsable del tratamiento.

Comunicarán inmediata y diligentemente al órgano responsable del tratamiento cualquier violación de la seguridad de los datos personales a su cargo de la que tenga conocimiento, a más tardar en el plazo de 72 horas, suministrándole toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia, o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información, que haya tenido o pueda

guztia, informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman gertatu den edo gerta litekeen edozein hutsegite, baldin eta arriskuan jarri badu datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edota eskuragarritasuna, bai eta mandatua gauzatzean lortutako datuak eta informazioa hirugarren pertsonaei jakinaraztearen ondorioz konfidentzialtasuna urratu bada ere, eta konfidentzialtasun-galera nozitu duten interesdunak zein diren ere jakinarazi beharko dute.

Tratamenduaren ardura duen organoari ahalik eta lasterren jakinaraziko dio interesdun batek organoarekiko dituen eskubideetakoren bat baliatu duela, hala nola datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, haiei aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak edota aplikatzekoa den araudiak aitortutako beste eskubide batzuk eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea.

Jakinarazpena berehala egin beharko da, eta eskubidea erabiltzeko eskaera jasotzen denetik ezingo da inola ere lanegun bat baino gehiago igaro. Jakinarazpenean, eskubidea nork baliatzen duen adieraziko da, modu frogagarrian identifikatuko da, eta, hala badagokio, eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitekeen dokumentazioa eta bestelako datuak ere erantsiko dira.

tener, que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad, como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceros de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del convenio, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad; todo ello, de conformidad con el artículo 33 del RGPD.

Comunicarán al órgano responsable del tratamiento con la mayor prontitud que una persona interesada ejerce ante ellas cualquiera de los derechos que le asisten, como el de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y portabilidad de sus datos personales, u otros reconocidos por la normativa aplicable, y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas.

La comunicación debe hacerse de forma inmediata, en ningún caso más allá del día laborable siguiente al de la recepción de la solicitud del ejercicio de derecho, incluirá la identificación fehaciente de quien ejerce el derecho e irá acompañada, en su caso, de la documentación y de otras informaciones que puedan ser relevantes para resolver la solicitud que obre en su poder.

Tratamenduaren ardura duen organoari lagunduko diote, ahal den guztietan, eskubidea baliatzen duen pertsonaren eskubidea bete dezan eta hari erantzun diezaion.

Asistirán al órgano responsable del tratamiento, siempre que sea posible, para que pueda cumplir y dar respuesta a la persona interesada que ejercita su derecho.

Tratamenduaren ardura duen organoarekin elkarlanean arituko dira, segurtasun-neurriei lotuta dituzten betebeharrak betetzeko, segurtasun-neurrien urraketak komunikatu (gauzatuak eta saiakera hutsekoak) eta jakinarazteko agintari eskudunei edota interesdunei, datu pertsonalen babesarekin lotutako inpaktuaren ebaluazioak egiteko, eta horren gaineko aldez aurreko kontsultak egiteko agintari eskudunei. Horretarako, betiere kontuan izango ditu tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa.

Colaborarán con el órgano responsable del tratamiento en el cumplimiento de sus obligaciones en materia de medidas de seguridad, en la comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de medidas de seguridad a las autoridades competentes o a los interesados y en la realización de evaluaciones de impacto relativas a la protección de datos personales y consultas previas al respecto a las autoridades competentes, teniendo en cuenta la naturaleza del tratamiento y la información de la que disponga.

Era berean, hemen ezartzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituztela frogatzeko informazio guztia emango diote tratamenduaren ardura duen organoari, hark eskatzen badie, eta tratamenduaren ardura duen organoak auditoretza edo ikuskapenen bat egin behar badu, horietan lagunduko diote.

Asimismo, pondrán a disposición del órgano responsable del tratamiento, a requerimiento de este, toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones aquí previstas, y colaborarán en la realización de auditorías e inspecciones llevadas a cabo, en su caso, por el órgano responsable del tratamiento.

Enkarguan zehar azpikontratatzea erabakitzen bada, AZTI Fundazioak eta Ceit Teknologia Zentroa elkarrekin honako hauek bermatu beharko dituzte:

En el caso de que se dé la subcontratación con ocasión del cumplimiento de los compromisos que adquieren en virtud del convenio, la Fundación AZTI y la Asociación Centro Tecnológico Ceit deberán garantizar lo siguiente:

Indarreko legerian, hitzarmen honetan eta tratamenduaren ardura duen organoaren jarraibideetan jasotakoa betetzen dutela datu pertsonalen tratamendua egitean.

Que el tratamiento de datos personales por parte del subcontratista se ajuste a la legalidad vigente, lo contemplado en este convenio y a las instrucciones del órgano responsable del tratamiento.

AZTI Fundazioak, Ceit Teknologia Zentroa elkarteak eta azpikontrataturako enpresak datu pertsonalen tratamendurako kontratu bat egin dutela, hitzarmen honetan aurreikusitako neurri zorrotzekin edo zorrotzagoekin. Tratamenduaren ardura duen organoak kontratua eska dezake, benetan kontratua egin den ikusteko eta haren edukia egiaztatzeko; halakoetan kontratua emango zaio.

Que la Fundación AZTI o la Asociación Centro Tecnológico Ceit y la empresa subcontratista formalicen un contrato de encargo de tratamiento de datos personales en términos no menos restrictivos a los previstos en el presente convenio, el cual será puesto a disposición del órgano responsable del tratamiento a su mera solicitud para verificar su existencia y contenido.

HAMAIKAGARRENA.- JARDUKETEN JARRAIPENA EGITEKO BATZORDEA.

UNDÉCIMA.- COMISIÓN TÉCNICA DE SEGUIMIENTO.

1.- Lankidetzeta-hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratuko da. Batzordekideak zortzi izango dira: alde sinatzaile bakoitzetik bina ordezkari. Hitzarmen hau sinatu dutenek izendatuko dituzte kideak, eginkizun hauek betetzeko:

1.- Se constituirá una comisión técnica para el seguimiento del presente convenio de colaboración compuesta por ocho personas, dos en representación de cada una de las partes firmantes, que se designarán, respectivamente, por quienes suscriben el convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Jarraipena egitea hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak zuzen betetzen diren zaintzeko, eta irizpideak eta bitartekoak ezartzea alderdiek elkarri informazioa eman diezaioten eta dagozkien konpromisoak egoki bete ditzaten.

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Kasu bakoitzean behar diren izapideak azkar egitea eragotz dezaketen oztopoak kentzeko bideak ematea.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Lankidetza-hitzarmen honen xedeko jarduketak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak jakinaraztea eta proposatzea.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio de colaboración.

d) Lankidetza-hitzarmen honek sortutako interpretazio- eta betearazpen-arazoak konpontzen saiatzea.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el presente acuerdo de colaboración.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta aldeetako edozeinek proposatuta, jarduketak ondo joateko behar den adina bider elkartuko da batzordea. Presidentetza eta idazkaritza txandaka beteko dituzte, batzordeak berak espresuki bestelakorik adosten ez badu. Bilera egiteko eta erabakiak hartzeko quoruma batzordeko kide guztiek osatuko dute.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo distinto expreso de la propia Comisión. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3. Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da, zeina Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen baita.

3. En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

HAMABIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA.

DUODÉCIMA.- REGIMEN E INTERPRETACION DEL CONVENIO.

1.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, beraz, interpretatu eta garatzeko

1.- El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su

administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.

interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio arazoak alde guztiak ados jarrita konponduko dituzte, aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 Legea bete beharko da.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos de común acuerdo por las partes; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA.

DÉCIMOTERCERA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

1.- Hitzarmenak ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea ezta horiek aldatzea ere, eta hitzarmenaren indarrez hartzen dituzten konpromisoei lotutako erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte beren gain.

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera hasiko da ondorioak izaten eta hortik aurrera hasiko dira alderdiak, halaber, hemen ezarritako obligazioak izaten; eraginpeko jarduketak amaitu eta entregatu arteko iraunaldia izango du hitzarmen honek (gehienez ere lau urte), baina luzatzeko aukera izango da, legeria aplikagarriaren arabera.

2.- El convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la conclusión y entrega de las actuaciones objeto de este convenio, con un máximo inicial de dos años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

**HAMALAUGARRENA.-
IRAUNGITZEA.**

HITZARMENA

1.- Aurreko klausulan aipatutako iraunaldia igaro delako edo alderdiek suntsiarazi dutelako iraungiko da hitzarmena.

2.- Alderdietako batek ez baditu betetzen bere gain hartutako konpromisoak, besteak eskubidea izango du hitzez hitz bete ditzala eskatzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko. Protokoloa suntsiarazten bada, alderdiek zehaztuko dituzte egiten ari diren obrak bukatzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Eta ezarritakoa betez eta ezarritako horrekin ados daudenez, bildu direnek jarduteko protokolo honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako leku eta egunean.

**URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI
NAGUSIA/DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA**

ANTONIO AIZ SALAZAR

**AZTI FUNDAZIOKO ZUZENDARIA/EL
DIRECTOR DE LA FUNDACIÓN AZTI/AZTI
FUNDAZIOA**

ROGELIO POZO CARRO

**DECIMOCUARTA.- EXTINCIÓN DEL
CONVENIO.**

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman quienes comparecen, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.

**GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOKO
PRESIDENTEA /PRESIDENTA DEL
CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA**

LEIRE ARTOLA UGALDE

**CEIT TEKNOLOGIA ZENTROA ELKARTEKO
ZUZENDARI NAGUSIA / DIRECTOR
GENERAL DE LA ASOCIACIÓN CENTRO
TECNOLÓGICO CEIT**

JUAN MELÉNDEZ LAGUNILLA